

BEZEROEN SEGMENTAZIOA:

Guk eskaintzen dogun zerbitzuaren bezeroak bi segmentutan banatuta dagoz:

Alde batetik, bolondres lanak egitera doazen pertsonak dagoz, hainbat ezaugarri bete behar dabezanak. Hasteko, Europan bizi behar dabe eta, batez be, 18 eta 60 urte arteko pertsonentzat zuzenduta dago. Horrez gain, klima aldaketagaz sentsibilizatutako pertsonak izan behar dira, solidarioak eta laguntzeko prest dagozanak. Zerbitzua aplikazio baten bitartez eskaintzen dogunez, teknologia erabiltzen jakin behar dabe eta bolondres lanak Europa osoan zehar eskaintzen doguzanez, leku batetik bestera mugitzeko prest egon behar dabe. INE-ren arabera, gitxi gorabehera, Europan bizi diran pertsonetatik %52a 18 eta 60 urte bitarteko pertsonak dira, eta %52 horretatik %20-30 inguruk gure bezeroek euki behar dabezan ezaugarriak betetzen dauz. Hortaz, Europako biztanleria osotik, %10,4 - %15,6 bitartea izango litzateke ezaugarri guztiak betetzen dauzan bezero kopurua.

Beste alde batetik, GKE-ak be gure bezeroak izango dira; izan be, koordinatutako zerbitzu bakoitzagaitik diru kopuru bat ordaindu beharko dabe. GKE-ek edozein arlo lantzen badade be, aplikazioan euren zerbitzua eskaintzeko aukera eukiko dabe eta bertan beharrezkoak diran bolondres postuak eta bolondres lanek izango dabezan ezaugarrien azalpenak agertuko dira (lan mota, beharrezkoa izango dan kualifikazioa eta esperientzia, egun kopurua, non eta noiz izango dan...), baldin eta zerbitzu hori hondamendi naturala gertatutako herrialdeko biztanleak laguntzeko edota ondorioak konpontzeko baldin bada; eta gure zerbitzua Europa osoan eskaintzen dogunez, Europar GKE-ak izan beharko dira. Europako GKE-en kopuru zehatza etengabe aldatzen da, erakunde asko denboran zehar sortu eta desagiten baitira. "European Commission" edo "The European Economic and Social Committee" erakundeen ikerketa eta datu-base batzuen arabera, 150.000 GKE baino gehiago dagoz Europan, hala nola, Espainiako "Cruz Roja"; Armeniako "Centre for Community Mobilization and Support" kulturean, Europako nortasun eta balioetan, landa-garapenean eta uri-berroneratzean aritzen dana; Bulgariako "Ecomission 21st Century association" ingurumena eta klima aldaketan, gazterian (parte-hartzea, gazteakaz lan egitea, gazte-politika), bizitza osasungarrian eta zahartze aktiboan oinarritzen dana, eta abar.